

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko urriaren 22tik 28rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/10/28

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko urriaren 18koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Gizarte ekintzako eta esku-hartzeko 2022-2024 urteetako hitzarmen kolektiboa. **17633 xedapena - 66 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/10/24

- **ESKUBIDE SOZIALEN ETA 2030 AGENDAREN MINISTERIOA. Antolamendua.** DSA/999/2022 Agindua, urriaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen den erregistroen alorreko laguntza bulegoa sortzen duen martxoaren 2ko DSA/159/2022 Agindua. **17316 xedapena - 2 or.**

2022/10/25

- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Ibilgailu elektrikoak.** TED/1009/2022 Agindua, urriaren 24koa, zeinaren bidez ezartzen den karga elektrikoko azpiegiturak instalatzera behartuta dauden erregaiak eta motor-erregaiak hornitzeko instalazioen zerrenda eta hori betetzeko salbuespen eta ezintasun teknikoak ezartzen diren. **17420 xedapena - 7 or.**

2022/10/26

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Nazionalitate espainiarra.** Instrukzioa, 2022ko urriaren 25ekoa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, nazionalitate espainiarra aukeratzeko eskubideari buruzkoa, Memoria Demokratikoaren urriaren 19ko 20/2022 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian ezarria. **17470 xedapena - 18 or.**

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI-AGENDAREN MINISTERIOA. Etxebizitza.** 903/2022 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, zeinaren bidez honakoak aldatzen diren: 42/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gazteen Alokairu Bonua eta Etxebizitza eskuratzeko Estatuko 2022-2025 Plana arautzen dituen; 106/2018 Errege Dekretua, martxoaren 9koa, Estatuko Etxebizitzaren 2018-2021 Plana arautzen duena; eta 853/2021 Errege Dekretua, urriaren 5ekoa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko egoitza-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituen. **17474 xedapena - 17 or.**

2022/10/28

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Nazionalitate espainiarra. Administrazio prozedurak.** JUS/1018/2022 Agindua, urriaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen den bizilekuagatik nazionalitate espainiarra emateko prozedurak izapidetzeari buruzko irailaren 30eko JUS/1625/2016 Agindua. **17596 xedapena - 4 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. Zirkulazio istripuak. Aseguruak.** 907/2022 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, zeinaren bidez aldatzen diren zirkulazio istripuetan pertsonen eragindako kalte eta galerak baloratzeko sistemako taula jakin batzuen zenbatekoak, zeinak Ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen eranskinean dauden (urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia), eta aldatzen den aseguru- eta berraseguru-erakundeen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretua, kaudimen araubide bereziari dagokionez zenbatekoak eurotan eguneratzeko. **17597 xedapena - 454 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoen Aldizkari ofiziala)

2022/10/28

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 44/2022 Foru Dekretua, urriaren 18koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko Lurralde Informazioaren Erregistroa (ALIE) sortu eta arautzeari. **2910E xedapena- 9 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/10/24

- **ZUZENTARAUAK.** 2022/1999 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2022ko urriaren 19koa, errepidez salgai arriskutsuen garraioa kontrolatzeko prozedura bateratuei buruzkoa (bertsio kodifikatua). **L 274/1 xedapena- 13 or.**
- **ESTATU KIDEETAKO INFORMAZIOA. 2022/C 407/05.** Identifikazio sistema elektronikoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 910/2014 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluko 1. apartatuaren arabera jakinaraziak. Erregelamendu hori identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzkoa da. **C 407/5 xedapena- 6 or.**

2022/10/25

- **ERREGELAMENDUAK.** EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2022/2038 (EB) ERREGELAMENDUA, 2022ko urriaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen den Kontseiluaren 95/93 (EEE) Erregelamendua, egoera epidemiologiko baten edo eraso militar baten ondorioz Batasuneko aireportuetan ordu-tarteak erabiltzeko arauak aldi baterako malgutzeari dagokionez. **L 275/14 xedapena- 124 or.**

2022/10/27

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/2065 (EB) Erregelamendua, 2022ko urriaren 19koa, zerbitzu digitalen merkatu bakarrari buruzkoa, 2000/31/EE Zuzentaraua (Zerbitzu Digitalen Erregelamendua) aldatzen duena. **L 277/1 xedapena - 102 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO